

## EUSKARAREN TAMAINA. INKESTAK

Deskribapena: Jendea, boluntarioak, txintxetak zero-hamar bitarteko eskalan ipintzen azaltzen da. Txintxeta gehienak zero-bost bitartean azaltzen dira.

Lehenengo boluntario lehenengo bikotekidea: “Ba uste dut nahiko... hainbeste hizkuntza dagoz, baina guria nahiko... ba ez dakit...”

Bigarren boluntario bikotea: “Ba oso herri txikia delako.”

Lehenengo boluntario bigarren bikotekidea: “Gutxi gare eta gutxiago hitz egiten dugu euskeraz, ba... horregatik.”

Hirugarren boluntario gizona: “Ba, Euskal Herrian be erderaz asko eta asko itten degu eta.”

Laugarren boluntario lehenengo bikotekide gaztea: “Dakien jendeak ere ez du bultzatzen eta orduan ba, geroz eta okerrago dago euskera.”

Bosgarren boluntario gizona: “Euskerie, ba, Euskadin bakarrik iten delako eta Euskadi txikie da eta halan dabe erderaz asko itten da.”

Laugarren boluntario bigarren bikotekide gaztea: “Nire ustez nahiz eta saiakerak egin ba euskeraren indarra edo bultzatzeko, jendeak ez du hori kontuan hartzen eta ez zaio nahiko erabilerarik ematen.”

Seigarren boluntario bikote gaztea: “Nik proportziñuagatik, jakinda, beno ez dakit zenbat pertsona bizi den justo munduan, baina jakinda zenbat jende dagoen munduan eta zenbat garen hemen, eta hemen gaudenen zenbat hitz egiten dugun euskera, ba...”

Zazpigarren boluntario gizona: “Haratago zortziatik.”

Kike: “Zortzitik.”

Zazpigarren boluntario gizona: “Bai.”

Deskribapena: Zortzigarren boluntario emakumea ageri da eskalan hiru zenbakian jarriz txintxeta.

Kike: “Hiru.”

Deskribapena: Bederatzigarren boluntario bikotea ageri da eskalan eta lehenengo bikotekideak zortzi zenbakian jartzen du txintxeta.

Bederatzigarren boluntario lehenengo bikotekidea: “Nik hemen.”

Kike: “Bale. Eta zuk?”

Bederatzigarren boluntario bigarren bikotekidea: “Bai? Han goian, e?”

Bederatzigarren boluntario lehenengo bikotekidea: “Bai.”

Deskribapena: Bigarrenengo bikotekideak zazpi zenbakian jartzen du txintxeta.

Bederatzigarren boluntario bigarren bikotekidea: “Pixkat pesimistago.”

Deskribapena: Hamargarren boluntario bikotea ageri da hiru eta bat zenbakietan jarriz txintxetak.

Kike: “Zuk hemen, zuk hor.”

Hamaikagarren boluntario: “Lauean jarriko nuke.”

Hamabigarren boluntario bikotea: “Laua.”

Deskribapena: Hamahirugarren boluntario bikotea ageri da hiru eta bi zenbakietan jarriz txintxetak. Eta hamalagarren boluntarioak hiruan ipintzen du.

Hamargarren boluntario bikotea: “Zazpiehun mila hitzun baino gutxiago garelako eta pentsatzen dut...”

Kike: “Gehixeago ere bai, milioi bat inguru bagara, bai.”

Hamargarren boluntario bikotea: “Ah bai? Orduan gorago ipini beharko nuke hori.”

Kike: “Bai, non jarriko zenuke?”

Hamargarren boluntario bikotea: “Erdian.”

Deskribapena: Hamabosgarren boluntario ageri da bi zenbakian ipintzen txintxeta.

Kike: “Bian, zergatik?”

Hamabosgarren boluntarioa: “Jende aldetik gutxi gara.”

Hamaseigarren boluntario bikotea: “Herri txikia gara, oso oso txikia.”

Zortzigarren boluntarioa: “Txinera hamarra baldin bada, euskerak gutxi deko. Askoz lurralde txikiago batean hitz egiten da.”

Hamalagarren boluntario bikotea: “Ba zazpi mila hizkuntzen artean, ba, euskera izango da txikienetarikoa, ze, Euskal Herria ere txikia da, orduan...”

Hamabigarren boluntario bikotea: “Uste dut e... gero eta gehiago, e... jendea poliki poliki euskaraz hitz egiten, hitz egiten da. Ni orain bakarrik bigarren mailan nago eta beno, poliki poliki.”

Hamaikagarren boluntarioa: “Badaudelako hizkuntza gehiago, ugari, eta uste dut, beste hizkuntzak gehiago hitz egiten direla.”

Bederatzigarren boluntario lehenengo bikotekidea: “Hartzen ditugun hizkuntzak dira frantsesa, ehun milioi, txinera mila milioi, inglesa ez dakit zenbat baina beti hizkuntza berdinak dira.”

Kike: “Barkatu, e? Azentu horrekin zu nongotarra zara?”

Bederatzigarren boluntario lehenengo bikotekidea: “Quebecekoa naiz.2

Kike: “Quebec-ekoa zara? Kontxo, kontxo.”

Bederatzigarren boluntario lehenengo bikotekidea: “Bai, bai.2

Bederatzigarren boluntario bigarren bikotekidea: “Lehenengo inpresioa da beheraka jotzekoa baina gero kontuan hartuta hizkuntza oso gutxi direla hiztun asko dauzkatena, hizkuntza gehienak direla hiztun gutxikoak, orduan, ba, pixkat gorago.”

Kike: “Badakizue non dagoen? gutxi gora behera?”

Deskribapena: zazpi eta zortzian zeuden txintxetak kendu eta bat bederatzian ipintzen du Kikek.

Kike: “Hemen, bederatzitik gora, bai.”

Bederatzigarren boluntario bigarren bikotekidea: “Bederatzian, bai, zu gertuago.”

Deskribapena: Kike ageri da galdetu dien boluntario desberdinei, eskalan, txintxeta bederatzira mugitzen.

Kike: “Hemen!”

Boluntario bat: “Ah bai?”

Beste boluntarioa: “Uau!”

Hamabigarren boluntario bikotea: “Bai? Ene!”

Hamargarren boluntario bikotea: “Haaara!2

Kike: “Hemen, bederatzitik gora!”

Hamabosgarren boluntarioa: “Bai?”

Kike: “Hemen!”

Hamaseigarren boluntarioa: “Jope!”

Kike: “Hemen, ez zara urruti ibili!”

Zazpigarren boluntario gizona: “Zazpi, bederatzigarrena orduan.”

Zortzigarren boluntario emakumea: “Hara!”

Lehenengo boluntario bikotea: “Ez didazu esan, benetan? Jo, ba ez nuke esango sekula, egixa!”

Laugarren boluntario bikote gaztea: “Ah bai?”

Boluntario kuadrila: (barrezka) “Broma da?”

Bosgarren boluntario gizona: “Zazpi mila artien? Ezin leike izan! Ezin leike izan!”

Laugarren boluntario bigarren bikotekide gaztea: “Harrituta gelditu naiz, ez nuen espero!”

Hirugarren boluntario gizona: “Esaten baduzu, holan izango da!”